

FUNTSESKO ELKARTEAK

StepDryn funtsezkotzat jotzen ditugu gure proiektuaren arrakastarako harreman estrategiko hauek: Alibaba, produkzioan azpikontrataturako enpresak, banaketako eta instalazioko bazkideak eta merkataritza-kate handiak.

Jarraian, erlazio horiek zehatz-mehatz azalduko ditugu, eta haien garrantzia eta gure negozio-proposamenari ematen dioten balioa nabarmenduko ditugu.

Alibaba izango da harremanetan jarriko garen eta lan egingo dugun lehen enpresa. Enpresa txinatar hau taldean aukeratu dugu, gure eragile nagusietako bat izango delako. Gure produktua ekoizteko altzairu herdoilgaitzezko plakak behar dira, eta Alibabak beste toki batzuetan baino merkeago saltzen ditu (1.151€/T). Funtsezko beste produktu bat ere eskaintzen digu: berogailu-hodiak, gure oin-lehorgailua ahalbidetzeko. Produktu honen 100 ale baino gehiago erosiko ditugunez, prezioa 2,40 €/u-koa da.



Ekoizpen-faserako, enpresa bat azpikontrataturako dugu. Alibaban erositako produktuak bidaliko dizkiogu, eta gure produktua guk emandako diseinuan oinarrituta ekoizteagatik ordainduko dugu. Ekoizpenaz arduratzen den enpresak ekoiztutako unitate bakoitzeko kobratuko du, eta azken prezioetik kenduko digute gure lehengaien kostua. Horiek Alibabari erosiko dizkiogulako. Azpikontrataturako enpresa Euskal Herrian kokatzen da, zehazki Bilbon, eta produktuak hona ekartzeko furgoneta handi bat alokatuko dugu.

Produktuaren instalazioa egiteko, gure enpresa lankidetzan akordio bat egingo du **Arrandi Construcciones** eta **Bitxiak Construcciones y Reformas Integrales**-ekin haien etorkizuneko eraikuntzetan gure produktua erabili ahal izateko. Horretaz gain, autonomo talde batekin lan egingo dugu eta haiek enkargatuko dira transporteaz eta gure





produkturen instalazioaz. Gainera, akordio batera iritsi gaitezke **Leroy Merlineki** eta **Brico Depotekin** haiek gure produktua haien dendetan erakutsiko dute.